



ATAZA - AIAKO HARRIA

PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



Lanaren nondik norakoak:

- Testuaren luzera 150 eta 200 hitz artean egongo da.
- Web-orrian duzuen mapa interaktiboan, parkeko bi arroka nagusien banaketa ikusiko duzue. Testuak, beraz, bi atal izan beharko ditu, arroka mota bakoitzari buruzkoa.

Bakoitzari buruz informazio hau azaldu behar da:

- Zer motatako arroka da (sedimentarioa, magmatikoa edo metamorfikoa)?
- Nola eratu zen arroka hori?
- Zer aro geologikotan sortu zen?
- Zein dira arroka mota horren erabilera posibleak (laburtuta)?
- Arroka mota horren argazki bat txertatu, gero ibilbide birtualean erabiltzeko.
- Ziurtatu idatzitako hitz guztiak ulertzen dituzuela. Horretarako, hitz ezezagunak bilatu Interneten, eta, hala ere, ez baduzue zerbait ulertzen, galdetu irakasleari.
- Testuaren ondoren, hau gehitu behar duzue dokumentuan:
 - Ezezagunak ziren hitzen zerrenda eta hitz bakoitzaren azalpen ulergarria aldamenean.
 - Informazioa eskuratzeko erabili dituzuen web-orri guztien helbideak idatzi.
- Osatu testua taldean, eta irakasleari erakutsi lehen zuzenketa egin dezan. Egin beharreko zuzenketak egin ondoren, prestatu behin betiko testua eta audioak grabatu (bat arroka mota bakoitzeko).